

# Haur eta nerabeei tratu ona emateari buruzko jardunaldiak



2021 Apirila

Haurrei eta nerabeei  
tratu ona ematearen  
alde





## HAURREI ETA NERABEEI TRATU ONA EMATEAREN ALDE

BBK Familytik haur eta nerabeei tratu ona emateko sentsibilizazio-proiektu bat abiarazi dugu. Eta horren barruan hainbat ekintza jarri ditugu abian:

“Ganar una Infancia” (Haurtzaroa irabazi) dokumentala, Athletic Fundazioaren Aterpe Programarekin elkarlanean. Sartu dokumentalaren esteka

- Haur eta Nerabeei Tratu Ona emateari buruzko Jardunaldiak, horien laburpena daukazue bidaltzen dizuegun aldizkari honetan.

- Online ikastaroak:

“**Tratu ona. Familia seguruak**” eta

“**Tratu ona. Kirola eta familia**”. Doan egin ahal izango dituzue gure BBK Family Learning plataforman.





**Pepa Horno Goicoechea** psikologoa eta aholkularia da haurtzaroan, afektibitatean eta babesean (erantsi bere argazkia)



## TRATU ONA EZINEZKOA DA LOTURA AFEKTIBORIK GABE

“Ingurune babeslea tratu onaren baldintza gisa” izan zen Pepa Hornoren hitzaldiaren izenburua, eta airearekin konparazio bat egin zuen, hau da, ziurtzat jotzen dugu beti dagoela hor, eta, hala ere, eraiki egiten da eta suntsitu edo galdu ere egin daiteke.

Pepa Hornok gogorarazi zigun umeek ezin dutela tratu ona bermatu, helduak behar dituztela hori beraiei bermatzeko, tratu txarrei buruz berba egiten dugunean umeak errudun sentitzen baitira. Eta haiekin landu beharreko gauzetako bat da esatea ez direla errudunak. Eta hortik aurrera, haurrekiko tratu onaren aurrean jarrera hartze bat sortzen da, eta hor ez dago aitzakiarik.

Tratu ona eraikitzeko moduari dagokionez, Hornok azaldu zuen hori ez dela posible lotura afektibo barik, eta keinu txikiekin eta umeak bizi diren gunetako bakoitzean egiten dela.

Haurrengan barneko gorputz-konexioa sortzeko gakoa beste batekin kontaktuan garatu ahal izatea da, bestearen begirada baita hori itzultzen diona. Horregatik da oso garrantzitsua gure seme-alabei begiratzea, baita haiek guri begiratzen ez digutenean ere. Eta zentzu guztietan elikatu behar dira, babes, entrega eta konfiantzaz jagon edo zainduta, elikatuta, seguru sentiarazita. Maitatuak direla sentitu behar dute, tratu onak berotasuna ematen duelako, eta sarean eraiki behar da, eta ez bakardadean. Hazkuntza tribuan egin behar da, inor ez baita zoriontsu bakarrik baldin badago, ezta ere beldurrez. Eta garrantzitsua da gure seme-alabak irtetera bultzatzea, lagunekin ibil daitezen, beti gure ondoan geratu barik.

### Familia eta lana uztartzeko zailtasuna egiturazko indarkeria da

Gainera, Pepak azaldu zuenez, bizi, sentitu eta pentsatzen dudana orekatuta badago, integratuta sentituko naiz. Eta horrek guztiak tratu ona sortzen du. Adibidez, umetxoak negar egiten duenean amak edo aitak hurbildu eta esaten badio: “Badakit gose zarela”, eta hartu eta bularra edo biberioia ematen badio,

haurrak badaki negar egiten badu janaria jasoko duela. “Baina haurrak negar egiten duenean ez badiot jaramonik egiten eta ez badiot jaten ematen, hortik aurrera umeak identifikazio nahasia izango du gorputzeko gose-sentsazioei buruz, eta hori jende askori gertatzen zaio, gose dela uste izaten du gose izan barik, eta alderantziz”.

Bestalde, Hornok babesleak ez diren ingurunez berba egin zuen eta zenbait adibide jarri zituen, hala nola familia eta lana uztartzeko zailtasuna, eta horri egiturazko indarkeria deitu zion. Gure seme-alabekin ezin egotea, gurasoek zela edo hala arindu gura izaten dutena.

Beste adibide batzuk ere jarri zituen, hala nola, epaitegi batean deklaratzeko edo ospitale batean edo polizia-etxe batean sartzeak, indarkeriazko inguruneak izaki, “autobabeseko jarrera izatea eragiten digute. Horregatik aldatu behar dira ingurune horiek, zoritxarrez ohitu egin gara-eta egiturazko ingurune bortitzetara”.



Para ver la ponencia completa de Pepa Horno pulsa aquí.





## ESPERIENTZIA INSPIRATZAILEAK OSASUNAREN EREMUAN

### Esperientzia emozionala garrantzitsua da ospitalean zaudenean

David Nadalek, Bartzelonako Sant Joan de Déu ospitaleko Pazientearen Kalitate eta Esperientzia Zuzendaritzako ondokoak, azaldu zigun zelan egin zuten aldaketa-prozesua ospitalean, pazienteak protagonista izan zitezten. "Pazienteak ospitalera sartzen direnean, zer jazo edo gertatzen zaien esatea eta osatzea gura izaten dute. Baina, gero, badira kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk: ospitalearekiko lehen harremana, ospitalea zelakoa den, esperientzia emozionala, jasotzen duten arretari buruzko sentimenduak, profesionalakiko harremana, alderdi operatiboak eta prozesuan eraginkortasuna, baita erabakietan parte-hartzea eta ospitale barruan dagokien ingurune fisikoa ere". Eta ezagutzeko eta hobetzeko, lan-taldeak osatzen dituzte profesional, paziente eta adituekin, arreta-eredua aldaraztea eragin dutenak.

Ez da gauza bera neska edo mutiko bati eskanerra aparatu zuri batean egitea edo espazio-ontzi bat dirudien aparatuan egitea. Garrantzitsua da, halaber, pazienteei informazioa zelan ematen zaien aztertzea, nahikoa den edo ez, eta horretarako pazienteek eta familiek parte hartzeko bideak irekitzen dituzte. Gainera, albiste txarrak ondo ematen ikasteko gida praktikoa dute...



Gehiago jakin gura duzu? Sartu beraren hitzaldia ikusteko

**SJD ospitalea ama-umeentzako monografikoa da, eta estatuko eta nazioarteko konplexutasun kliniko handiko pazienteak artatzen ditu.**

Sant Joan de Déu ama-umeentzako ospitalea

### Sexu-abusu baten esperientzia kontatu beharrik ez izatea tratu ona da

Carmen Escudero Garcíak, Haurren aurkako Abusu eta Tratu Txarrak Tratatzeko Garaitza elkartearen zuzendari eta sortzaileak, azaldu zuenez, Euskal Autonomia Erkidegoan maila instituzional eta publikoan ez zegoen gune bat sortzeko beharrian edo premiagatik sortu zen erakunde hori, eta, horretarako, "geure historia propioa berrintegratu behar izan genuen, laguntza eman ahal izateko".

Sexu-abusuak eta tratu txarrak haurtzaroan dituen ondorioei ahotza ematea du helburu, pertsonak bakardadean bizi ez dezaten bizitza osoan metatuta daramaten zama; izan ere, sexu-abusuaren osagai garrantzitsu bat sekretismoa da, gizarte-bakartze edo isolamendua ekartzen duena. Horregatik, Garaitza elkarteak asko lantzen dute esperientziaren ukatzea, sortzen duen minagatik. "Asko sustatzen dugu tratu ona, bizi izandako esperientzia kontatzeko beharrian barik, biktima berriro ez biktimizatzeko, eta gehiago lantzen da gaur egun zelan sentitzen naizen, ondorio traumatikoak ikusteko".



Garaitzak egiten duen lan edo beharra ezagutu gura baduzu, hemen ikus dezakezu hitzaldi osoa.

Garaitza elkarte



## ESPERIENTZIA INSPIRATZAILEAK FAMILIAREN EREMUAN

### Egon ez ezik, ardura ere hartu gura duten gurasoak

Mikel Arakistainek, berdintasuna kontzientziatik esperimentatu gura duen Ongiz-Ezberdin elkarteko kideak, gizon eta aiten talde batek azken 7 urteotan izan dituen bizipenak, prozesuak eta ikaskuntzak kontatu zizkigun. Beraiekiko, familiarekiko eta gizartearekiko begiradaren aldaketa, ardura handiagoz jokatzeko aukera ematen diena, baita aitatasun kontzientea eta berdintasunezko harremanak garatzeko guraria ere.

“Egotea eta ardura hartzea garrantzitsua da, adibidez, pentsatzea nire alabak merienda behar duela, askaria erosi eta alabari eroatea. Izan ere, aita berrion ezaugarria gehiago da egotea beharizan eta zainketez arduratzea baino”.



Ongiz-Ezberdin sakonago ezagutu gura baduzu, sar zaitetz bere hitzaldia ikustera.

### Madrilgo Casa Grande: sarea eraikitzeko leku bat

Zelan sortu sarea ez daukazunean? Zelan detektatu zaugarritasun-egoerak? Ikas daiteke gatazkak beste modu batera konpontzen? Elena Rodríguez Casa Grande zentroen koordinatzaileak azaldu zigun zelan egiten duten Casa Grande gunek komunitarioen barruan, irekita dagoelarik 4 urtez azpiko haurrak dituzten familientzat, gurasoentzat, zaintzaileentzat. Jolas- eta harreman-esperientziak elkarrekin eta beste familia batzuekin partekatuz elkarri eragiteko eta elkar lotzeko leku bat da hau. Gune horretan, nor bere ardurapean dituen adingabeen hazkuntza eta zaintzarekin lotutako eguneroko kezak planteatu, partekatu eta azaldu daitezke. Azken batean, etxe handiak dira, eta beste begirada batekin ateratzen zara haietatik.



Ezagutu gura dituzu Casa Grande zentroek dakartzaten onurak? Sartu hemen ikusteko.



**Ongiz-Ezberdin**

**Casas Grandes, espacios familiares de juego del Ayuntamiento de Madrid, gestionados por ABD** (Asociación, Bienestar y Desarrollo)





**Francesco Tonuccik, maisu,**  
**pedagogo eta,** batez ere,  
hautzaroarekiko duen bokazioagatik,  
“**bambinologo**” (bambino=haur, ume)  
titulua jaso du.

**Erromako Ikerketen Kontseilu  
Nazionaleko (CNR) Psikologia  
Institutuko ikertzailea da; familia,  
eskola eta hiriaren esparruan  
haurren pentsamendua eta portaera  
aztertzeraz bideratu du bere jarduera  
profesionala, betiere “ume-begiekin”.**  
**Erantsi Tonucciren argazkia**

## TRATU ONA EZ DA GURASOEN ITXAROPENAK BETETZEA

Francesco Tonuccik, berak dioen bezala, titulu zirikatzaile batekin parte hartu zuen: “Tratu ona, ... ona, norentzat?”. Izan ere, Bogotako haurrekin izandako topaketa batek eraman zuen hausnartzera zer den tratu ona helduentzat eta zer den haurrentzat. Andrea izeneko neskatila batek esan zion min hartzea garrantzitsua dela, horrela ikasi egiten delako. Eta horrek dakarren kontraesanean pentsatu zuen Tonuccik; izan ere, gurasook gure seme-alabak artatu, jagon eta laguntzen ditugu, ezer gerta ez dakien, seguru egon daitezen eta, hala ere, Andreak esan zuen legez, min hartzea garrantzitsua da ikasteko, justu kontrakoa!

Ildo horretan, gure seme-alabak haur-parkean zelan sartzen ditugun aipatu zuen Tonuccik: jolaserako egokitutako sehaska moduko bat, non jostailu guztiak jartzen ditugun umetxoak hortik atera barik babestuta egon daitezen; eta gero beste parkera eroaten ditugu, eta han guk neurtzen dugu umea egongo den denbora, minik har ez dezan zaintzen dugu eta noiz itzuli behar duen esaten diogu, denbora antolatzen laga barik eta zelan igaro erabakitzen utzi gabe. Aipatu zuen, halaber, eskolaz kanpoko ekintzaz betetzen ditugula, arratsalde bat ere libre izan ez dezaten eta guk, guraso gisa, egiterik izan ez genuena egin dezaten. Baina, azkenean, gorrotatu egiten dute ikasitako hizkuntza, guk aukeratu genien musika-tresna edo kirola.

### **Eskola ez da pandemian ere gelditzen**

Eta zer gertatzen da eskolarekin? Zein da eskolaren tratu ona? Han apur bat nahasiagoa izaten da gauza; izan ere, eskolan tratu onaz berba egiten denean, helduek ikasleekiko duten tratu onaz berba egiten da. Baina neska-mutikoei interesa jarri eta gertatzen denari adi-adi egon behar dute. Eta irakasleak kexatu egiten zaizkie gurasoei: “Zuen semeak, edo alabak, ez dit entzuten, ez da adi egoten, ez dit jarraitzen”, eta hori oso egoera arraroan gertatzen da; izan ere, eskolan haurrei eskatzen zaie leku berean ordu asko eserita egotea denetarik eginez, eta interesaturik eta adi-adi egon daitezen gura dugu; arraro samarra da, ume

batentzat ez baita normala denbora luzez leku berean egotea, ezta denbora guztian eserita egotea ere.

Gainera, arriskutsua da fisikoki, kalte egiten dio gorputzaren egiturari; eta leku berean eserita denetik egitea are arraragoa da, zeren eta han eserita matematika, hizkuntza, geografia, historia, marrazketa, kantua, ... egiten baita, eta hori, noski, oso proposamen konplikatuak da, eta are konplikatuagoa eskolaraz gehiago dituzten haurrentzat: horiek dira hezitzaileen arreta handiena izan beharko luketenak, eta galtzen ditugunak, ezin baitute jarraitu, ez die denborarik ematen behar duten guztia hain azkar aldatzeko, irakaslez, liburuz,... aldatzeko, baina aldaketa kognitiboak ere behar dituzte, eta hori oso zaila da.

Eta azkenik, eskolaz berba egin zuen, pandemiaren garaian Italian “Eskola ez da gelditzen” leloa izan zuena. Eta mantendu zen eskolarentzat bere funtsa dena, klaseak eta etxeko lanak. Agur esan zien patioei, ikaskideen arteko harremanei, arreta edo aditasuna galtzeko aukerari. Eta kartzelak bezalakoak, espetxeak lakoak diren eskolei buruz hausnartzera gonbidatu gintuen: umea ordu asko eserita egotera behartzen dute, ezer egin barik, entzuten bakarrik; eta horrela zailtasun handienak dituztenak galtzen ditugu, eta ez dugu laguntzen munduko herrialde guztiek berretsitako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 29. artikulua dioena lortzen. Umearen hezkuntzak haurraren nortasun, trebetasun eta gaitasun mentala eta kritikoa garatzera bideratuta egon behar duelako, ahalik eta gehien. Eta benetan hori da eskolan egiten dena?




**Francesco Tonucciren hitzaldi osoa ikusteko sakatu hemen**



## KIROL-ETA AISIA-EREMUKO INGURUNE SEGURUEI BURUZKO ESPERIENTZIA INSPIRATZAILEA


### “Neska-mutikoak zuzenbide-subjektuak dira, eta haurrak ikusezin daude gizartean”

Iñaki Alonso Athletic Fundazioaren Aterpe programaren arduradunak adierazi zuenez, “Entrenatzaileok kirol arlotik haratago doan rol edo eginkizuna dugula jabetu behar dugu, eta beharizan horretatik sortu da Aterpe, haurrak babesteko Athletic Fundazioaren programa”. Horren barruan, prebentzioa, prestakuntza eta jarduketa-protokoloak egiten dituzte. Eta prestakuntza etenbakoa da profesional guztientzat; zehazki, bi prestakuntza-mota egiten dituzte: bat orokorra, zer den babesa eta tratu ona; eta bestea espezifikoa, pertsonak klubaren barruan duen eginkizunaren arabera. Izan ere, gai izan behar dute tratu txar egoerak antzemateko eta horien aurrean zelan erreakzionatu jakiteko.

 Athletic Fundazioaren Aterpe programa sakonago ezagutu gura baduzu, Iñaki Alonsoren hitzaldi osoa hemen ikus dezakezu.

### Haurren sexu-abusuaren prebentzioa lantzeko beste era bat

Aina María Duran Mestrek, RANA Fundazioko pedagogoa, haur eta nerabeen sexu-abusuari heltzeko beste modu bati buruz berba egin zigun: gure gorputzarekin lan egitea, tabuak ezabatzea, deseroso egiten gaituzten egoerak detektatzeko jolasa erabiltzea. Izan ere, haur eta nerabeen sexu-abusua errealitate bat da, eta horren prebentzioa funtsezko tresna da haien babesa eta ongizatea bermatzeko. Aisialdi eta denbora libre testuinguru egokia da prebentzio-programak garatzeko, tratu onetik eta balioen sustapenetik abiatuta, jarduera ludiko eta dinamiko bidez.

 Ezagut itzazu, Aina-ren hitzaldiaren bidez, haurren eta gazteen abusuak prebenitzeko, Rana Fundazioak abian jartzen dituen dinamikak..





## INGURUNE SEGURUEI BURUZKO ESPERIENTZIA INSPIRATZAILEAK HEZKUNTZAREN ESPARRUAN

### Aldaketa-ekintzen buru diren nerabe eta gazteak

Marianao Fundazioko Judit Blancok eta Fátima Cevallosek, Esfera Jove projektuko erreferenteez, gogo handiz berba egin ziguten nerabeak eta gazteak zelan inplika daitezkeen beren ingurunean aldaketa-eragile izan daitezzen. Izan ere, Sant Boi de Llobregat-eko Marianao auzoan, eragin handia duten gizarte-proiektuak zuzentzen eta ezartzen dituzte. DBHko 3. mailan hasten dira, Marianao Fundazioa oso presente baitago auzoko institutuan, eta gazteak diren bitartean gura beste denbora jarrai dezakete parte hartzen eta jarduerak, proiektuak ... bultzatzen. Kontzientzia kritiko eta ekintzailea sustatzeko oso modu eraginkorra da.



**Sar zaitetz haien hitzaldi osoa ikustera, proiektu guztiak eta gazteek sare sozialetan egiten dizkieten kritika onak ezagutzera.**

### Haizeder

Erruki Aberasturi zuzendariak eta Alaitz Ajuria ikasketa-buruak Haizeder-i buruz berba egin ziguten, "Eskola horretara itzuli gurako duzu". Eta hala izan zen, pozez zorutzen geratu ginen Bizkaiko udalerrri batean, Ean, kokatutako landa-eskola txiki baten eraldaketa-esperientziarekin.

Prestakuntza eta oztupoak gainditzeko prozesu neketsu baten ostean, nahiz eta estamentu administrazio, familia, hezkuntza, ... guztien laguntza handia izan, ikuspegia aldatu zuten ikasleengan ardazteko eta horiek protagonista izateko. "Espazioen eraldaketarekin, afektibitate-segurtasuna, umea fisikoki eta afektiboki seguru sentitzea lortu gura genuen, bere ni-a eraiki ahal izateko, eta kritikoak eta taldearen parte aktibo izatea gura genuen".



**Jakin gura duzu zelan lortu zuten? Sartu beraren hitzaldia ikusteko.**

